

**BATZAR AKTA 8/2020**

<b>Gaia:</b>	<b>Kontratazio lan-taldea</b>
<b>Helburua:</b>	Bermeoko Udaleko kontratazioaren espedienteak eraginkorrakoak izatea
<b>Data:</b>	<b>2020/09/24</b>
<b>Hasiera – bukaera ordua:</b>	<b>12:00-13:50</b>
<b>Parte hartzaileak:</b>	Naiara Anasagasti (Antolakuntzako AOT), Jurdana Uriarte (Idazkaria), Edurne Uriarte (Kontu-hartzailea) eta Nerea López (Idazkaritzako AOT eta lan-taldeko koordinatzailea).

**Tratatutako gaiak/Ondorioak:****Gaiak:****Ondorioak:**

- |   |  |
|---|--|
| 1. Aurreko aktaren onarpena                                 | 1. Akta onetsi da  |
| 2. Aurreko batzarreko egitekoen jarraipena                  | 2. - Kutxa aurrerapenen instrukzioa: Diruzaina gonbidatzen da parte hartzera eta bere ikuspuntua azaltzen du. Ondoren Kontu-hartzailearekin ikuspuntuak trukatzeko dira. Ateratako ondorioak hurrengoak dira: Interesdunei instrukzioa azaltzea, zabalkundea egin eta onartzea. Ordainketa modu horren erabilera mugatu beharra dago.<br>- Kontratazio zentralizaturako prozedura zehaztu eta zabaldu: Prestatuta dago. Tokiko Gobernu Batzarrera pasatu behar da bertan onartzeko.<br>- Kontratazio zentralerako ereduak moldatu (eranskinak eta justifikazio txostena): Prestatuta daude. Tokiko Gobernu Batzarrera pasatu behar dira bertan onartzeko eta ondoren Swalera igotzeko. |
| 3. Hornidura kontratu txikien inguruko proposamena          | 3. Adosten da sailen artean hitz egitea halako egitateak ematen direnean, baina ez arautzea.   |
| 4. Prozedurak efizienteagoak izateko proposamenak aztertzea | 4. Kontu-hartzaileak hitza hartzen du eta proposatzen du baldintza agirien laburpen taula moldatzea, ikusita enpresa gehienek gaizki aurkezten dutela dokumentazioa. DEUC agiria nola bete behar den azaltzea ere proposatzen du.  |
| 5. Sail ezberdinetako arazoak bideratzeko proposamenak      | 5. Swalera kontratazio prozeduretan hurrenkera aldatzea proposatzen da: lehendabizi erabaki proposamena, ondoren idazkariaren txostena eta jarraian kontu-hartzailearena. Baita ere aipatzen da PDF  |



editableen auzia. Komentatzen da lizentziak erosi behar direla, bitartean word editable bidez egin ahal da.

**Bileraren helburuaren betetze maila:****% 100****Egitekoak:**

<b>Deskribapena</b>	<b>Epea</b>	<b>Erantzulea</b>	<b>Eginda</b>
Kutxa aurrerapenen instrukzioa akordatu eta zehaztu	2020-11-25	Eduarne/Izaskun	
Baldintza agirien laburpen taula moldatu	2020-11-25	Nerea	
Swaleko kontratazio espedienteetan ordena aldatu	2020-11-25	Naiara	
Kontratazioa eraginkorragoa izateko proposamenak aztertu eta iradokizunak egin	2020-11-25	Denok	
<b>Data: 2020/09/24</b>	<b>Akta hartzailea: Nerea López Angulo</b>	<b>Or. 2/2</b>	

